

Epigenetika helburu duten sendagaiak

(Drugs targeting epigenetics)

Oihane Martínez-Peula^{*1}, Guadalupe Rivero Calera^{1,2}

¹ Farmakologia Saila, Medikuntza eta Erizantza Fakultatea, Leioa (UPV/EHU)

² Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Bizkaia, Spainia
eta CIBERSAM (Centro de Investigación Biomédica en Red de Salud Mental)

LABURPENA: Epigenetika hitzak DNA-sekuentzia aldatu gabe aktibitate genetikoan gertatzen den edozein aldatzeko egiten dio erreferentzia. Faktore ez-genetikoek (hala nola, infekzioak eta farmakoak) aldaketa epigenetikoak eragin ditzakete, gure genoma osotik zein gene adieraziko diren eta zein ez erabakiz. Hortaz, epigenetika genetiken eta inguruko faktoreen eta esperientzien arteko lokailua da. Garai erabakigarrietan (garapen fetalean, haurtzaro goiztiarrean eta nerabetasunean) eraginez, faktore ez-genetikoek gure epigenoma ezarrisko lukete, deskribatu izan diren 3 mekanismoaren bidez: DNAreen metilazioa, histonen itzulpen osteko aldaketak eta RNA ez-kodetzaileen eragina. Azken hamarkadetan, epigenetikaren inguruko ikerketa ugari egin dira; gehien aztertu den mekanismo epigenetikoa itzulpen osteko histonen azetilazioa izan da. Azetilazio-asaldurak hainbat gaixotasunen garapenarekin erlazionatuta dira. Horren adibiderik aipagarriena minbizia izan da. Horretan oinarrituz, histonen deazetilasen inhibitzaleak (HDACi) minbiziaaren kontrako tratamendu gisa postulatu ziren. Gaur egun, lau HDACi daude onartuta minbizia-mota ezberdinaren aurkako tratamendurako, eta 20 baino gehiago fase klinikoan evaluatzten ari dira. HDACi-ek minbizian duten eraginkortasunak beste gaixotasun batzuetan aztertzeko aukera eman du. Gaixotasun neuroendekatzaile eta psikiatrikoen komplexutasuna eta tratamendu eraginkorren falta dela eta, HDACi-ak terapia potencial interesgarri bihurtu dira. HDACi-ek eragile neurobabesle gisa joka dezaketenetza, Huntingtonen eta Parkinsonen gaixotasunetan duten eraginkortasuna aztertzen ari da. Asaldura bipolarrean eta eskizofrenian ere aurrera doa HDACi-en ikerketa.

HITZ GAKOAK: Epigenetika, mekanismo epigenetikoak, COVID-19a, histonen deazetilasen inhibitzaleak (HDACi), minbizia, Huntingtonen gaixotasuna, Parkinsonen gaixotasuna, asaldura bipolarra, eskizofrenia.

ABSTRACT: Epigenetics refers to any change in genetic activity without altering DNA sequence. Non-genetic factors (i.e. infections and drugs) may cause epigenetic alterations throughout our genome, indicating which gene will be expressed and which one will not. Therefore, epigenetics is the linker between genetics and environmental factors and experiences. Exposure to non-genetic factors at crucial stages of development (fetal development, early childhood and adolescence), would establish our epigenome through 3 mechanisms: DNA methylation, post-translational histone modifications and non-coding RNA. There have been many studies in the field of epigenetics in the last decades, the most studied epigenetic mechanism being post-translational histone acetylation. Alterations on histone acetylation pattern have been related to the development of many diseases. The most notable example is cancer. Based on this, histone deacetylase inhibitors (HDACi) became new targets in oncological therapy. Nowadays, four HDACi are approved for the treatment of different types of cancer, and more than 20 HDACi are being evaluated in clinical phase. The efficacy of HDACi against cancer has leveraged the study of HDACi in other diseases. Due to the complexity and the lack of effective treatment for neurological and psychiatric disorders, HDACi drugs have become an interesting potential therapy. Due to neuroprotective properties of HDACi agents, their effectiveness against Huntington's and Parkinson's diseases is being evaluated. HDACi research around bipolar disorder and schizophrenia is also moving forward.

KEYWORDS: Epigenetics, epigenetic mechanisms, COVID-19, histone deacetylase inhibitors (HDACi), cancer, Huntington's disease, Parkinson's disease, bipolar disorder, schizophrenia.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Oihane Martínez Peula, Farmakologia Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Sarriena auzoa z/g, 48940, Leioa. – oihane.martinez@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-0798-7103>

Nola aipatu / How to cite: Martínez-Peula, Oihane; Rivero Calera, Guadalupe (2021). «Epigenetika helburu duten sendagaiak». Ekaia, 40, 2021, 11-31. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22188>).

Jasotze-data: 2020, urriak 23; Onartze-data: 2021, otsailak 2.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2021 UPV/EHU




Lan hau Creative Commons Aitoru-EzKomerziala-LanEratorrikGabe 4.0 Nazioarteko Lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Epigenetika terminoa zientziaren arlora mugatuta dagoela dirudien arren, gure eguneroko bizitzan ikus dezakegu. Epigenetika gizabanako baten fenotipoa finkatzen duen prozesuetako bat da. Hala, genetikoki berdinak diren bikietan, fenotipoa ezberdina da. Horrelako kasuak nonahi ikus daitezke, nahiz eta biki horiek familia berean hazi. Fenotipoak gai-xotasunak pairatzeko arriskuan eragin dezake, eta, gainera, urteetan zehar edota inguruko faktoreen mende alda daiteke. Adibidez, biki horietako batentzat eskola-garaia zailagoa izan daiteke, eta horrek haren haurtzaroa haurreidearena baino gogorragoa bihurtu. Umetan izandako arazo horiek heldutasunean alkoholismoa, beste droga batzuen kontsumoa edota gai-xotasun psikiatrikoak pairatzeko arriskua handitu dezakete [1]. Beste bikiaren haurtzaroa, aldiz, zoriontsua izan daiteke, baina haren nutrizio-ohiturak batere osasuntsuak ez badira, nagusitan obesitatea, diabetesa edota arazo kardiovaskularrak garatzeko arrisku handiagoa izango du [2]. Zer-gatik? Gehienok haien bizimoduarengatik eta bizi-esperientziengatik dela esango genuke, eta gure bizimodu eta gure esperientzia goiztiarrek eragin iraunkor bat izan dezaketela ondorioztatuko. Baina osasun-zientzietan aritzen garenoi fenomeno horren oinarri biologikoa interesatzen zaigu. Bikien kode genetikoak berdinak dira; beraz, genomak ere ez dio galdera horri erantzungo. Gaixotasun horiek pairatzeko arriskuaren jatorria edota zergatia azaltzeko, «genomaren gainean» dagoena ulertu behar da; epigenoma, hain zuzen ere. Izan ere, «epi» aurrizki grekoak gainetik esan nahi du; epigenoma, beraz, genomaren gainetik dagoena izango litzateke. Berrikuspen honetan azalduko den bezala, genetikoak ez diren faktore batzuek epigenetika alda dezakete, gure genomaren zein gene aktibatu edo isiltzen den erabakiz, hau da, gure geneen adierazpenea erregulatuz. Modu horretan, mekanismo epigenetikoek gure fenotipoa, gaixotasunen agerpena barne, kontrolatuko lukete. Bigarren atal batean, mekanismo epigenetiko horiek modu onuragarrian aldatzen dituzten farmakoen bila egin diren aurrerakuntzak berrikusiko dira.

2. ZELULAREN NUKLEOARI BEGIRA: ZER DA EPIGENETIKA?

Genetikak genotipoa finkatzen du; fenotipoa zehaztearen erantzule bat, aldiz, epigenetika da. Baina nola finkatu ahal dituzte aldaketa epigenetiko iraunkorrak faktore ez-genetikoek? Gure material genetikoaren egiturari eraginez. Epigenetikak ez du DNAREN sekuentzia aldatzen, aktibilitate genetikoa baizik. Hori ulertzeko, DNA zelula eukariotoen nukleoan kromatina izeneko egitura dagoela ekarri behar dugu gogora. Kromatinak zelularen funtzionaltasuna bermatzeko informazio genetikoaren antolakuntza espaziala aldatzen du, eta geneen adierazpenean berebiziko garrantzia du.



1. irudia. Kromatinaren antolaketa zelula eukariotoetan. DNA zelula eukario-toen nukleoan kromatina izeneko egiturak antolatzen da. Bertan, DNAren haria histona izeneko oktameroen inguruan kiribilkatuta dago nukleosomen katea osatuz. Kromatinaren deskiribiltzeak nukleosomak banatzen ditu DNAren eskuragarritasuna handitz (eukromatina) eta transkripzio-prozesua ahalbidetuz. Irudi hau Wikipediak hartu eta eraldatu izan da, Creative Commons Attribution (CC BY 3.0) lizentziapean [3].

Kromatinaren oinarrizko unitatea nukleosoma da (1. irudiko bola urdinak). Nukleosoma bakoitza histona-oktamero batez eta histona horren inguruan kiribilkatuta dagoen 147 base-pare dituen DNAren zatiaz osatuta dago. Oktamero horrek H2A, H2B, H3 eta H4 histonen bi kopia ditu. Mekanismo epigenetikoek nukleosomen kondentsazio-maila kontrolatzen dute, eta ondorioz, kromatinaren eskuragarritasuna aldatzen dute. Hori dela eta, kromatina bi egoeraren artean dagoela esaten da: inaktiboaren (heterokromatina) eta aktiboaren (eukromatina) artean. Kondentsatuta dagoenean, hau da, transkripzioa ahalbidetzen ez duenean, inaktibo dago. Geneen transkripzioa ahalbidetzen denean, al-diz, egoera aktiboan dago (1. irudia). Geneen erregulazio epigenetikoa

DNAren metilazioz edota histonen itzulpen osteko aldaketen bidez gerta daiteke. Histonen N-terminaleko aminoazido hondarretan aldaketa koblentek gertatzen dira. Espezie gehienetan H3 eta H4 histonek itzulpen osteko aldaketa ezberdinak pairatu ahal dituzte: azetilazioa lisina hondar ezberdinetan, metilazioa arginina eta lisinetan, eta fosforilazioa serina eta treoninetan. Horietatik, epigenetikaren arloan, metilazioa eta azetilazioa ikertu dira gehien [4].

Bai DNAren metilazioak, bai histonen itzulpen osteko aldaketek ezin-besteko garrantzia dute geneen adierazpenaren erregulazioan eta, beraz, haren azterketa beharrezkoa da mekanismo horien konplexutasunaz jabetzeko.

2.1. DNA-ren metilazioa

DNAren katean gertatzen den aldaketa nagusia metilazioa da. Metilazioa DNAren zitosinaren 5. karbonoan gerta daiteke, eta DNA-metiltransferasek (DNMT) katalizatzen dute; gehienetan, geneen transkripzioa erre-primitzen du [4]. Metilazio-prozesu horri buruzko lehen ikerketek geneen erregulazioarekin eta zelulen diferentziaziorekin erlazionatu zuten. Ugaztunetan, *loci* espezifikoan gertatzen den DNAren metilazioa aita eta amaren aleloen adierazpen bereizgarirako ezinbestekoa da; X kromosomaren inaktibaziorako, esaterako. Gainera, enbriogenesian zehar aldaketa hori nahiko dinamikoa da [5]. Garapenaren faseak behin igarota, DNAren metilazio-prozesua epe luzerako transkripzioaren errepresioarekin erlazionatzen da. Hala ere, mekanismo hori ez da guztiz argitu eta DNAren metilazioak geneen adierazpenari nola eragin diezaiokeen aztertzen duten ikerketetan emaitza kontraesankorrak lortu dira [6].


2.2. Histonen metilazioa

Histonen metilazio entzimatikoa histona-metiltransferasek (HMT) katalizatzen du. Gziketan, lisina- edo arginina-hondarrerekiko espezifikoak diren 50 HMT ezberdin baino gehiago identifikatu dira. HMTek metilo talde baten, biren edo hiruren eransketa katalizatu ahal dute. Aminoazido-hondarraren arabera eta metilazio-mailaren arabera, metilazioaren ondorioak ezberdinak izango dira. H3 histonaren metilazioa 4. edo 79. lisinan gertatu ondoren, geneen transkripzioa aktibatuko da. Aldiz, metilazioa 9. edo 27. lisinan gertatzen bada, transkripzioa inaktibatuko da [4].

Histonen metilazioa ez da behin betiko aldaketa bat. Izan ere, histona-demetylasek (HDM) metilo taldeen askapena katalizatzen dute. Entzima horien espezifikotasuna metilazio-mailaren eta metilatu den aminoazido hondarraren araberakoa izango da [4].

2.3. Histonen azetilaziao

Azetilaziao histonen itzulpen osteko aldaketen artean ikertuenetariko bat da. Histonen azetilaziao histona-azetiltransferasek (HATek) katalizatzen dute. Albo-katean azetilo taldea sartzean, kromatinak egitura irekia hartzen du, eta transkripzioaren handipena bultzatzen du (2. irudia) [4].



2. irudia. Histonen azetilazio eta deazetilazioaren ondoriozko eraginak transkripzioan. HAT: histona-azetiltransferasa; HDAC: histona-deazetilasa; HDACi: histona-deazetilasen inhibitzailea; Ac: azetiloa.

Azetilazioaren kontrako prozesua, hau da, deazetilazioa, histonen deazetilasen (HDAC) bidez gertatzen da, eta geneen adierazpenaren murrizketarekin erlazionatzen da. Entzima horien lisina-hondar ezberdinakiko espezifikotasuna ez da guztiz ezagutzen [4]. Egun arte, 18 HDAC isoforma karakterizatu dira, eta 4 klasetan sailkatzen dira; I, II, III eta IV klaseetan, hain zuzen. Haien inhibizio farmakologikorako, garrantzitsua da I, II eta IV klaseak zink-menpekoak direla ezagutzea. I klaseak HDAC1, 2, 3 eta 8 barneratzen ditu, II klasean HDAC4, 5, 6, 7, eta 9, eta IV klasean soilik HDAC11. III klasea entzimatikoki eta egituraren aldetik ezberdina da, eta sirtuina 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7az osatuta dago [7]. HDAC entzimen funtzi nagusia histonen deazetilazioa nukleoan katalizatzea den arren, pentsatzen da beste hainbat funtzi egin ditzaketela beren kokapen azpizelularren arabera [8]. Gainera, lehen aipatu bezala, mekanismo epigenetikoak zelula espezifikoak dira. Espezifikotasun hori, beste mekanismoen artean, zelula bakoitzak adierazten dituen HDAC klasearen eta isoforma espezifiko bidez lor daiteke. Adibidez, garuneko zelula neuronalak eta glialak banatu izan direnean, HDAC adierazpena ezberdina dela aurkitu da [8].

3. EPIGENETIKA ETA GAIXOTASUNEN GARAPENA

Epigenetikak gaixotasunen garapenean eragina izan dezakeela proposatu zuen lehen lanetako bat Suediako herri bati buruzko ikerketa epidemiologikoa izan zen [9]. Herri horretako artxiboetan, jaiotzari eta heriotzari buruzko informazioaz gain, beste datu sozioekonomiko batzuk ere jasotzen ziren, hala nola goseteak eta uzta txarrak. Ikerketa horren hasierako helburua zen elikadura-ohituren eta osasunaren arteko erlazioa finkatzea. Dantuetatik abiatuta, belaunaldi batek izandako dietak (garaiko gosete eta uzta txarrengatik txarra izan zitekeena) belaunaldiko gizabanakoentzako bizi-itxaropena baldintza zezakeela ikusi zuten ikertzaileek. Baino haientzat, belaunaldi horrek pairatutakoak seme-alaben edota biloben bizi-itxaropenean ere eragina zuela behatzea izan zen harrigarriena. Gainera, nutrizio-gabeziak garapeneko garai garrantzitsuetan gertatzen baziren, bilobengan zituzten ondorioak nabarmenagoak ziren. Geroago egindako ikerketek faktore ez-genetikoen eraginaren garrantzia giza garapenaren hiru unetan finkatu dute: garapen fetalean, haurtzaro goiztiarrean eta nerabetasunean. Hortaz, garapenaren une erabakigarriean zenbait ingurumen-faktoreren eraginpean egoteak gaixotasunekiko sentikorrago bihurtuko gintuzke, eta faktore horiek eragindako sentikortasun hori gure ondorengoei pasatzeko arriskua egon daiteke [9].

Ikerketak egin ahala, ingurumen-faktore ezberdinak identifikatu dira, hala nola nutrizio-egoera, gai kimikoekiko esposizioa, estresa, farmakoak eta infekzioak. Faktore horiek gaixotasunen garapenean izan ahal duten eragina mekanismo epigenetikoen bidez azal daiteke: DNAREN metilazioa, histonen itzulpen osteko aldaketak eta RNA ez-kodetzaileen eragina [10].

Mekanismo epigenetikoen asaldurak gaixotasunetan maiz deskribatu dira. Adibidez, minbizian aldaketa epigenetiko iraunkorrak aurkitu dira [11]. Obesitatean eta diabetesean ere, mekanismo epigenetiko bereizgarriak identifikatzen ari dira [10]. Asaldura neurologikoetan eta adinarekin erlazionatuta dauden Alzheimerren eta Parkinsonen gaixotasunetan ere aztertzen ari da mekanismo epigenetikoen garrantzia [12, 13]. Aurkikuntza horiek epigenetikak gaixotasunen diagnostikoan, pronostikoan eta terapiaren izan dezakeen garrantzia azaleratu dute.

Epigenetikaren eragina gaixotasun psikiatrikoetan ere gaurkotasun-gaia da. Izan ere, gaixotasun psikiatrikoak konplexuak dira, eta haien etiopatogenia ez dago guztiz argi. Eskizofreniaren kasuan, esaterako, heredagarritasun-tasa handia da. Herentzia genetikoak gaixotasuna pairatzeko arriskua handitzen du, baina ez da nahikoa gaixotasuna garatzeko [14]. Azken ikerketek faktore ez-genetikoek ere eskizofrenia garatzeko arriskua handitzen dutela azpimarratu dute, eta berriro ere, mekanismo epigenetikoak fenomeno horren eragile gisa postulatu dira [15].

4. ALDAKETA EPIGENETIKOAK ETA COVID-19 BIRUSA

Bizi dugun egoerari dagokionez, epigenetikaren eta COVID-19 birusaren arteko bi norabideko erlazioa aipa dezakegu. Alde batetik, koronabirus eta influenza birusak zelula ostalarien sekuentzia genetikoa aldatzeako gai ez diren arren, aldaketa epigenetikoaren bitartez, infekzioaren hedapena lor dezakete [16]. Mekanismo epigenetiko hori ez da guztiz argitu, baina azken aldiko ikerketa batean H5N1ak (hegazti-gripearen birus-andua) eta MERS-CoVak (Ekiadle Ertaineko arnas sindromearen koronabirusa) DNAren metilazioaren bidez antigenoa aurkezten duten molekulen adierazpena murrizten dutela proposatu da [17].

Bestalde, gaixotasunaren pronostikoan erabakigarriak diren faktore ugarik mekanismo epigenetikoaren bidez gure erantzun immunea eta kutsakortasuna alda ditzakete. Erantzun immuneari dagokionez, adinarekin batera epigenoman gertatzen diren aldaketeak sistema immunea ahuldu dezaketela ikusi da, T zelulen funtzionaltasunean, zitokinen suntsipenenean eta patogenoen ezagutza-patroietan eraginez [18]. Kutsakortasunari begira, COVID-19 birusak zelulak infektatzeko erabiltzen duen ACE2 entzimaren adierazpen genikoa DNAren metilazioaren bidez erregulatzen dela proposatu berri da [19]. Beste ikerketa batean, DNAren metilazio-patroi hori sexuaren eta adinaren arabera aldatzen dela determinatu da, eta ACE2 genearen metilazio-maila pazienteen arriskua aurreikusteko markatzaile gisa proposatu [20].

Datu gehienen arabera, gaixotasun kronikoek ere (lupus eritematosoa, kasu baterako) COVID-19ari erantzuteko moduan izan dezakete eragina. Lupus pazienteetan DNAren metilazio-gutxitze nabarmena dago. DNAren hipometilazioak X kromosomari eragiten dio batez ere; kromosoma horren barruan ACE2 genea kokatzen da. Ikerketa berri batek ACE2 genearen hipometilazioa eta ACE2 entzimaren adierazpen handiagoa aurkitu ditu lupus-pazienteen T zeluletan; horren ondorioz, COVID-19 kasu larriagoak gerta daitezkeela proposatu du [19].

5. POSIBLE AL DA EPIGENETIKA FARMAKOLOGIKOKI MODULATZEA?

Orain arte azaldutakoaren arabera, gure bizitzan zehar gertatutakoa, pairatutakoa edota erabakitakoa etorkizunean garatuko ditugun gaixotasunen eragile izan daiteke. Horrez gain, amaren sabelean gaudela, gure amari gertatutakoaren ondorioz gure zeluletan aldaketa epigenetiko iraunkorrik ager daitezke, gure bizitzan eragingo dutenak [21, 22]. Beraz, epigenetika belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren ezaugarri onuragarri eta kaltegarrien erantzule izan daiteke; horrek ondorio mediko eta etiko larriak


izan ditzake. Egoera horren aurrean, gure patu epigenetikoa onartu behar al dugu? Molda daiteke epigenetika farmakologikoki? Bai, posible da, eta hori ikertzen duen farmakologiaren atalari farmakoepigenetika deritzo.

Farmakoepigenetika jakintzagai berri honen helburu nagusia terapia epigenetikoa da, hau da, farmakoen bidez gaixotasunekin erlazionatutako aldaketa epigenetikoak saihestea edo tratatzea. Gaur egun, mekanismo epigenetikoetan eragina duten farmako batzuk ikertzen ari dira; adibidez, DNMTen inhibitzaileak edo HMTen inhibitzaileak [23-25]. Bainaz azken urteetan berebiziko garrantzia hartu dutenak HDAC entzimen inhibitzaileak (HDACi) dira [4].

Histonen lisina-hondarren deazetilazioa leheneratuta histonen hipereztilazioa eragiten duten konposatuak dira HDACi-ak. Hiperazetilazioak nukleosomaren eta honen inguruan bilduta dagoen DNAren arteko tarte handitzen du. Kromatinaren egitura gertatzen den irekiera horrek ge-neen hasierako aldea eskura uzten du transkripzioa edo irakurketa izan dadin. Arestian aipatu denez, lau klasetako 18 HDAC daude. HDACi-ek, HDAC isoformekiko espezifikoak izatea baino gehiago, HDAC klasearekiko espezifikotasuna aurkezten dute. Hortaz, HDACi batek HDAC isoforma ezberdin asko inhibi ditzake; ez-espezifikotasun hori eragin onuragarriekin erlaziona daiteke, baina baita kaltegarriekin ere [26].

HDACi batzuk iturri naturaletatik purifikatu dira, eta beste batzuk kimikoki sintetizatu dira. Euren egitura kimikoan oinarrituta, HDACi-ak bost taldean sailkatzen dira: hidroxamatoak, peptido ziklikoak, kate motzeko gantz azidoak, bentzamidak eta beste jatorriko konposatu batzuk (3. irudia). Hidroxamato-egitura duten HDACi-ak HDAC entzimen zink ioia-ren domeinu katalitikoari lotzen zaizkio, eta entzimaren aktibitatea inaktivatzen da. Mekanismo hori dela eta, hidroxamatoek I eta II klaseetako HDACak inhibitzen dituztela uste da. Peptido ziklikoentzimak talde oso zabala da, eta talde hori osatzen duten HDACi-ek egitura ezberdinak aurkezten dituzte. Egituraren aniztasuna dela eta, talde horretako inhibitzaileek HDAC isoforma ezberdinak espezifikoki inhibitzen dituzte; horrek HDACi farmakoen garapenerako eta ikerkuntzarako talde interesgarria bihurtzen dute. Hala eta guztiz ere, gutxien ikertu den taldea da; peptido ziklikoentzimak adibide ezagunenak apizidina eta romidepsina dira. Kate motzeko gantz azidoen taldeko HDACi ezagunenak azido balproikoa, butiratoa eta fenilbutiratoa dira. Talde honek garrantzi handia dauka neurofarmakologia arloan. Gehienek I eta II klaseko HDAC entzimak inhibitzen dituzte, baina, beste HDACi taldeekin konparatuta, potentzia txikienekoak dira. Potentzia-falta hori zink katioarekin elkar eragiteko ezgaitasunagatik dela uste da. Bentzamidak, beste HDACi taldeekin konparatuta, erdibizitza luzea eta selektibitate nahikoa aurkezten dute. Izan ere, HDACi berrien ikerkuntzan, talde horretako konposatuak garrantzi handia hartu dute, eta HDAC isoforma espezifikoak inhibitzenko diseinatuak dira. Beste jatorriko konpo-

satueng artean, III klaseko HDACak inhibitzen dituzten farmakoak daude. Talde horren adibiderik ezagunenak suramina eta nikotinamida dira. Suraminak sirtuina 1 eta 2 inhibitzen ditu; nikotinamidak, ordea, sirtuina 7. Azken horrek, aho bidez administratzen denean, hesi hematoenzefalikoa erraz zeharkatzen du; horregatik bilakatu da neurozientziatan ikertzeko far-mako interesgarria [26].



3. irudia. Histonen deazetilasen inhibitzale (HDACi) motak egitura kimikoaren arabera eta zenbait adibide. HDACi-en egiturak bost taldean banatzen dira: hidroxamatoak (trikostatin A), peptido ziklikoak (apizidina), kate motzeko gantz azidoak (butiratoa, fenilbutiratoa), bentzamidak (MS-275) eta beste jatorriko konposatu batzuk (suramina eta nikotinamida).

5.1. Epigenetikan oinarritutako minbiziaren aurkako tratamenduak

Minbiziaren aurkitutako lehenengo aldaketa epigenetikoa koloneko minbizi-zelulen DNAren metilazio-mailaren jaitsiera izan zen [27]. Horrik aurrera, ikerketek minbizi-mota ezberdinaren aldaketa epigenetiko bereizgarriak deskribatu dituzte; gehienak histonen azetilazio-asaldurak ziren [28, 29]. Horrekin batera, HDAC entzimak minbiziaren fase ezberdinaren inplikatuta daudela ikusi da; HDACen maila handiak gaixotasunaren fase terminalarekin erlazionatzen dira [11]. Hori dela eta, HDACi-ak minbizia tratatzeko alternatiba terapeutiko gisa postulatu dira.

2006. urtean, FDAk (*Food and Drug Administration*) lehenengo HDACi-a onartu zuen, vorinostat-a (SAHA). Farmako horrek I, II eta IV klaseko HDAC entzimen aktibitatea inhibitzen du, eta T zelulen aza-leko linfomaren tratamenduan eraginkorra da [30]. Linfoma-mota horren

aurka, 2009. urtean, FDAk romidepsin farmakoa ere onartu zuen, egitura biziklikoa duen I klaseko HDAC entzimen inhibitzaile selektibo eta potentea dena. Bi urte geroago, romidepsinari beste indikazio bat gehitu zitzzion, T zelulen linfoma periferiko errefraktarioa [31]. 2014. eta 2015. urteetan belinostat eta panobinostat farmakoak onartu ziren: belinostat-a, T zelulen linfoma periferikoaren kontrakoa, eta panobinostat-a, mieloma anizkoitzaren kontrakoa. Gaur egun, 20 HDACi baino gehiagoren eraginkortasun terapeutikoa fase klinikoan ebaluatzen ari da; givinstat-arena, esaterako. Farmako hori, panobinostat-a bezala, mieloma anizkoitzaren aurka eraginkorra izan daiteke, eta II. faseko entseguetan dago. Azido balproikoa ere I eta II. faseko entseguetan ebaluatzen ari da. Kasu honetan, tumore solidoen aurkako tratamendu bezala eraginkorra izan daiteke [32] (1. taula).

1. taula. Minbizian onartuak diren edota entsegu klinikoetan ebaluatzen ari diren HDACi-en adibideak. Taula honetan farmako bakoitzaren izena, egitura kimikoa, farmakoak inhibitzen dituen HDAC entzimen klaseak, eta argitaratutako entsegu klinikoak edota erabilera klinikoa azaltzen dira.

Farmakoa	Egitura kimikoa	Inhibizio espezifikotasuna	Entsegu klinikoak eta erabilera
Vorinostata (SAHA)	Hidroxamatoa 	I, II eta IV klaseak	2006. urtean onartuta: — T zelulen azaleko linfoma [30] 2. faseko entseguak: — Ehun bigunetako sarkomak [33] — Leuzemia mieloide akutua [34] 1. faseko entseguak: — Minbizi gastrointestinala [35] — Linfoma folikularra [36]
Romidepsina	Peptido ziklikoa 	I klasea	2009. urtean onartuta: — T zelulen azaleko linfoma [31] 2011. urtean onartuta: — T zelulen linfoma periferiko errefraktarioa [31] 2. faseko entseguak: — Prostata-minbizia [37]

Farmakoa	Egitura kimikoa	Inhibizio espezifikotasuna	Entsegu klinikokoak eta erabilera
Belinostata	Hidroxamatoa 	I, II eta IV klaseak	2014. urtean onartua: — Tzelulen linfoma periferikoa [32] 2. faseko entseguak: — Timoma [38] — Leuzemia mieloidea [39]
Panobinostata	Hidroxamatoa 	I, II eta IV klaseak	2015. urtean onartuta: — Mieloma anizkoitza [32] 2. faseko entseguak: — Prostata-minbizia [40] 1. faseko entseguak — Tumore solidoa [41,42]
Givinostata	Hidroxamatoa 	I eta II klaseak	2. faseko entseguak: — Mieloma anizkoitza [43]
Azido balproikoa	Kate motzeko gantz azidoa 	I eta II klaseak	2. faseko entseguak: — Neoplasma tiroideoa [44] 1. faseko entseguak: — Tumore solidoaak [45]

Ebaluatzen ari diren HDACi gehienak minbizi hematologikoetan dira eraginkorrik. Tumore solidoen kasuan, HDACi-ak monoterapiaren era-ginkorrik ez direla ikusi da. Horren kausa ez dago argi, baina ikerketa gehienek HDACi-en propietate farmakozinetikoengatik dela proposatzen dute. Gainera, tumoreen ezaugarri heterogeneoak direla eta, HDACi-ak beste farmako antineoplásikoekin batera erabiltzeak aukera hoberena dirudi [32, 46]. Adibidez, HDACi-ak agente kimioterapikoekin konbina daitzeke. Vorinostata, karboplatinoa eta paklitaxela konbinatzen dituen terapia I. faseko entsegu klinikotan ebaluatu da. Entsegu horietan vorinostataren konbinatutako terapiak emaitza onak aurkeztu ditu eta II. faseko entseguetara pasatu da [47]. Minbizi-mota batzuk hormona-mendekoak direnez (ugatz- eta prostata-minbizia, esaterako), terapia hormonala HDACi-ekin konbinatzen saiatu da. Prostata-minbizian HDACi-en monoterapiak ez du

emaitza onik lortu. Aldiz, fase aurreklinikoan, HDACi bat bikalutamida antiandrogenoarekin konbinatzean, eragin zitotoxikoaren sinergia haute-man da [48, 49].

HDACi-en erabilera hedatu ahala, lehen eragin kaltegarriak ere deskribatu dira. Orain arte, pazienteek pairatu ahal dituzten eragin kaltegarri ohi-koenak gastrointestinalak (beherakoa, goragale eta goitikak), odol-asaldu-rak (tronbozitopenia, neutropenia), anorexia edota nekea dira. Deskribatu den eragin kaltegaririk larriena romidepsinarekin hautemandako toxikotasun kardiakoa (arritmia bentrikularra) da. Izan ere, FDA-k onartu baino lehen, entsegu klinikoetan romidepsina hartu zuten sei gaixo kausa horren-gatik hil ziren [32].

Nahiz eta HDACi-ek (monoterapian eta terapia konbinatuetan) minbizia tratatzeko bide berriak ireki dituzten, horiekin batera mugak azaldu dira. HDACi-ekin erlazionaturiko eragin kaltegarriak gainditzeaz gain, minbizi zelulen HDACi-ekiko erresistentzia ere gainditu beharra dago. Be-ratz, HDACi-eten oinarritutako terapia konbinatuaren eraginak guztiz ez-a-gutzeko, entsegu kliniko handiagoak egitea beharrezkoa da. Gainera, etor-kizuneko ikerketak HDACi-en selektibitatea hobetzen zentratuko dira: horien eragina minbizi-zeluletarra mugatuko da, eta, ondorioz, zelula ez-kantzerigenoetan dituzten eragin kaltegarriak murritzuko [32, 46].

5.2. HDACi-en erabilera beste gaixotasun kronikoetan

Arestian aipatu denez, erregulazio epigenetikoak prozesu zelular anitzetan parte hartzen du. Zenbait ikerketatan, aldaketa epigenetikoek neuronen garapenean eta plastikotasunean duten garrantzia ikertu da, eta hi-poazetilazioa neuroendekapenarekin erlazionatuta dagoela nabarmendu da. Badirudi HDACi-ek eragile neurobabesle gisa joka dezaketela endekapen neuronala leheneratzeko [26, 50]. Hori dela eta, HDACi-ak neuroendekapenezko gaixotasunen eta gaixotasun psikiatриkoen tratamendu gisa postulatu dira [26, 51]. Izan ere, garun-gaixotasunak konplexuak dira, eta batzuen etiopatogenia ez da guztiz ezagutzen. Gainera, gaixotasun horien gaur eguneko farmakoterapia ez da nahikoa. Sintoma batzuk arintzen dituzten arren, beste batzuk okertzen dituzte, edota eragin kaltegarri nabar-menak eragiten dituzte [51].

